

KANPO-MERKATARITZAREN ESTATISTIKA (ECOMEX). 2020ko apirila

Euskal AEko ondasunen esportazioek, 2020ko apirilean, % 53,2 egin zuten behera eta inportazioek, % 43,2

2020ko lehen lau hiletako metatuen kanpo-saldoak oraindik 1.000 milioi eurotik gorako superabita eta % 119ko estaldura-tasa erakusten ditu

Euskal AEko **ondasunen esportazioek** % 53,2ko beherakada izan zuten, urte arteko tasa nominalean, Eustatek emandako datuen arabera. 1.042 milioi euro izan ziren eta, aurreko urteko hil berean, 2.228,4 milioi. Ondasun *energetikoen* esportazioek % 81,7ko atzeraldia izan zuten, eta ez-*energetikoenek*, % 48,9koa.

Hiru lurralde historikoei aurretik aipatutako joerari eusten diote, baina Araban nabarmenagoa da; izan ere, % 69,2ko atzerapena izan du. Ondoren Bizkaia (–% 51,5) eta Gipuzkoa (–% 44,3) daude. Ehuneko horiek Araban “Garraio-materiala”ren muga-zergeren sekzioarekiko mendekotasunaren ondorio dira, eta, Bizkaian, “Produktu mineral eta energetiko”ekin duen loturaren ondorio. Azken kasu horretan, produktu-mota horri Bizkaiaren beherakada kenduz gero, % 38,0koa izango zatekeen.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2020 Apirila

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Apirila			Apirila		
	2019	2020	Δ %	2019	2020	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	2.228.383	1.042.008	-53,2	1.734.640	985.942	-43,2
PRODUKTU ENERGETIKOAK	293.215	53.563	-81,7	517.441	180.782	-65,1
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.935.168	988.445	-48,9	1.217.198	805.160	-33,9
URTEKO METATUA	8.405.987	6.610.477	-21,4	6.893.817	5.550.273	-19,5
PRODUKTU ENERGETIKOAK	691.907	408.973	-40,9	1.829.872	1.325.883	-27,5
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	7.714.079	6.201.503	-19,6	5.063.945	4.224.390	-16,6
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	525.779	162.131	-69,2	327.933	146.656	-55,3
URTEKO METATUA	2.358.966	1.825.727	-22,6	1.439.653	1.166.953	-18,9
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	945.252	457.985	-51,5	1.046.355	591.060	-43,5
URTEKO METATUA	3.215.930	2.606.829	-18,9	3.968.585	3.187.194	-19,7
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	757.352	421.892	-44,3	360.352	248.226	-31,1
URTEKO METATUA	2.831.091	2.177.920	-23,1	1.485.579	1.196.126	-19,5


Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Euskal AEko **ondasunen inportazioek** –985,9 milioi euroko zenbatekoa– % 43,2 egin zuten behera, 2019ko apirilaren aldean. Inportazio *energetikoei* % 65,1 egin zuten behera (–% 18,5, baldin eta inportatutako tonak aintzat hartzen baditugu), eta *ez-energetikoei*, % 33,9. Lurralde-mailan, beherakadarik handiena Araban erregistratu da (% 55,3), gero Bizkaian (–% 43,5) eta, azkenik, Gipuzkoan (–% 31,1).

Hil honetan, hamar herrialdetan –Frantzia, Alemania, Estatu Batuak, Italia, Erresuma Batua, Portugal, Belgika, Herbehereak, Polonia eta Txina– esportazioen % 61,2 metatu da. Gehienak EB-

27ren barruan daude; erakunde horretan, 592,3 milioirekin, Euskal A Eren ondasunen salmentaren % 56,8 kontzentratzen da.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

ESPORTAZIOEN ANALISI SEKTORIALA (2020KO APIRILA)

Jarduera-adarrak (A86) aztertuta, kategoria gehienetan itzulera esportatzailerako joera ikusten da; hala, haietako 6tan –guztira 48– baino ez dira erregistratzen igoerak –intentsoak edo ez hain intentsoak–. 10 garrantzitsuenetatik, bat ere ez da hazi aurreko urteko hil beraren aldean. Ehunekoak negatiboak dira, besteak beste: “*Paperaren industria*”ren ondoriozko produktuen % 4,9 eta “*Beste garraio-material bat*”en % 81,7.

Dagoeneko aipatutako kategoriaren beherakada gogorraz gainera, itzulera esportatzailearen tamaina dela eta, honako adar hauek nabarmentzen dira: “*Ibilgailu motordunen fabrikazioa*” (–% 81,4 eta 76,9 milioi esportatu); “*Kokeriak eta petrolio-fintzeak*” (–% 76,9 eta 48,3 milioi); “*Kautxuzko produktuak*” (–% 56,9 eta 39,2 milioi); “*Gai metalikoak*” (–% 40,7 eta 98,5 milioi); “*Siderurgia*” (–% 40,3 eta 124,3 milioi); “*Burdinazkoak ez diren metalen ekoizpena*” (–% 37,2 eta 49,7 milioi); “*Material eta ekipo elektrikoa*” (–% 33,9 eta 60,6 milioi) eta “*Erabilera orokorreko makineria*” (–% 26,1 eta 172,2 milioi), zeina, hil honetan, bolumen esportatzaile handieneko adar bilakatu baita.

Euskal AEko muga-zergeren partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). 2020ko Apirila

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
GUZTIRA	2.228.383	1.042.008	100	-53,2
Automobilentzako zati eta osagarriak	142.038	60.131	5,8	-57,7
Petrolioaren olio finduak	189.778	46.232	4,4	-75,6
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	40.469	30.348	2,9	-25,0
Kautxuzko pneumatiko berriak	74.179	29.290	2,8	-60,5
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	37.842	28.372	2,7	-25,0
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafak eta tirak	34.445	19.607	1,9	-43,1
Eskuzko erremintetarako tresna trukagarriak	39.581	18.879	1,8	-52,3
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	33.471	18.181	1,7	-45,7
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikorako kobre anodoak	11.090	16.511	1,6	48,9
Ardoa, mahats freskoarena	14.203	16.148	1,5	13,7
Burdina edo altzairuzko gainerako enbriaturak	27.055	16.089	1,5	-40,5
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	17.743	13.654	1,3	-23,0
Kateak eta horien galdaketak, burdinazko edo altzairuzko zatiak	3.947	13.136	1,3	232,8
Bolen, arrabolen edo orratzen errodamentuak	10.976	12.699	1,2	15,7
Bero bidezko materialak tratatzeko aparatuak	5.633	12.581	1,2	123,4
Kraft papera eta kartoia, iztuku edo estali gabea, bobina edo orritan	15.098	12.513	1,2	-17,1
Galdaketak, burdinazko edo altzairuzko hodiariaren osagarriak	9.810	11.727	1,1	19,5
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak...	15.814	11.713	1,1	-25,9
Materiala eraziz metala zulatzeko, eskariatzeko, fresatzeko edo haritzatzeko makinak, tornuak izan ezik	8.350	11.628	1,1	39,3
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketaerako euskarriak	13.354	11.593	1,1	-13,2
Metal arruntzko giltzarriak, sarraila, morroilo eta giltzak	15.259	11.309	1,1	-25,9
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	14.508	11.225	1,1	-22,6
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak....	17.527	10.631	1,0	-39,3
Haria, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	14.524	10.205	1,0	-29,7
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	15.062	10.193	1,0	-32,3

(p): behin-behineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

2020ko apirilean, 25 muga-zergeren partida nagusietatik, 7 hazi egin dira eta 18k murrizketak izan dituzte, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Aldi horretan, Euskal AEko esportazioaren bi partida garrantzitsuenak honako hauek izan dira: “Automobilentzako zati eta osagarriak” eta “Petrolioaren olio finduak”. Lehenengoak 60,1 milioi izan ditu, eta hilaren guztizkoaren % 5,8, % 57,7 egin baitu behera; bigarrenak % 75,6ko beherakada izan du eta, kasu horretan, esportatutako 46,2 milioien ondorioz guztizko beraren % 4,4.

“Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdina edo altzairuzkoak” partidak gora egin du eta rankingaren hirugarren postuan dago; % 25,0 egin du behera (30,3 milioi euro salmentetan).

Eskala horretako hurrengo partidak, “Kautxuzko pneumatiko berriak” partidak, % 60,5 egin du atzera. “Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako” partidak % 25,0 egin du behera, eta “0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafak eta tirak” partidak, % 43,1 eta, hala, rankingaren seigarren postuan dago.

“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” (–% 96,0 eta 5,9 milioi), “Salgaiak garraiatzeko automobilak” (–% 98,0 eta 1,9 milioi) eta “Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropultsatuetarako” (–% 94,0 eta 10,0 milioi) normalean hilero ranking esportatzailearen lehen postuetan izaten dira, eta, hil honetan, ez daude lehen 27 postuetan ere.

ARABA. Esportazioak 2020ko apirilean

Arabako Lurralde Historikotik egin den esportazioak % 69,2 egin du atzera. Hamar partida nagusietatik (guztizkoaren % 43,2), seik hazkunde-tasa negatiboak izan dituzte, eta nabarmentzekoak dira, duten garrantziagatik, automobilgintzaren sektorearekin zerikusia dutenak: “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” (–% 96,2), “Automobilentzako zati eta osagarriak” (–% 79,8) eta “Kautxuzko pneumatiko berriak” (–% 63,1). “Salgaiak garraiatzeko automobilak” partida (% 98,1eko beherakada) ez dago lehendabiziko postuetan; rankingeko 20. postuan dago. Itzulera esportatzaileerako joera ez da partida garrantzitsuenetan orokortzen hil honetan, honako partida hauen hazkunderik erakusten dutenez: “Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-

banaketarako euskarriak (% 37,4), *“Ardoa, mahats freskoarena”* (% 18,7) eta *“Tapoi, tapa eta bestelako osagarriak metal arruntezko ontzientzat”* (% 14,4).

Arabako lurralde historikoko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). Apirila 2020

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
Guztira	525.779	162.131	100	-69,2
Ardoa, mahats freskoarena	12.451	14.773	9,1	18,7
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	24.795	13.200	8,1	-46,8
Kautxuzko pneumatiko berriak	27.525	10.164	6,3	-63,1
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	9.724	6.268	3,9	-35,5
Metal arruntezko ontzietarako tapoiak, tapak eta beste osagarri batzuk	5.251	6.009	3,7	14,4
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	142.189	5.359	3,3	-96,2
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	2.895	3.980	2,5	37,4
Aireontzien parteak	11.838	3.563	2,2	-69,9
Automobilentzako zati eta osagarriak	17.041	3.442	2,1	-79,8
Kaskaradun fruitu freskoak, lehorrak edo mondatuak, Brasilgo kokoak eta intxaurrak edo marañoia izan ezi	0	3.247	2,0	-

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

BIZKAIA. Esportazioak 2020ko apirilean

Bizkaian esportazioek % 51,5 egin dute behera. Fenomeno horretan, eragin handiena partidari garrantzitsuenak izan du: *“Petrolioaren olio finduak”*, % 75,7ko beherakada izan baitu. Hala ere, produktu horrez gainera, prozesu horretan beste partida batzuek ere izan dute eragina, besteak beste: *“Automobilentzako zati eta osagarriak”* (–% 67,4), *“Kautxuzko pneumatiko berriak”* (–% 59,1), *“Eskuzko erremintatarako tresna trukagarriak edo makina-erremintatarako”* (–% 52,1) eta *“0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak”* (–% 45,3). Nabarmentzekoa da *“Kobre findu gabe; fintze elektrolitikorako kobre anodoak”* (% 48,9 egin du gora), *“Burdinurtuzko, burdinazko edo altzairuzko kateak eta bere zatiak”* (% 258,6) eta *“Bero bidez gaiak tratatzeko aparatuak”* (% 644,2).

Lurralde honetako urte arteko 487,3 milioiko beherakadatik, 143,5 ranking esportatzaileko lehen postuko partidari dagozkio. Beherakada latz hori, zati batean, azken egunetan petrolioaren produktu eratorrien prezioetan izandako beherakadaren ondorio da; euroen balioaren ordeztuak esportatuak erabiliko bagenu, –% 75,7ko ehuneko hori –% 23,1era murriztuko litzateke (2019ko apirilean 340.853 tona izatetik, 2020ko apirilean 262.116 tona izatera)

Bizkaiko lurralde historikoko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). Apirila 2020

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
Guztira	945.252	457.985	100	-51,5
Petrolioaren olio finduak	189.491	45.975	10,0	-75,7
Automobilentzako zati eta osagarriak	59.130	19.280	4,2	-67,4
Kautxuzko pneumatiko berriak	46.387	18.974	4,1	-59,1
Eskuzko erremintatarako tresna trukagarriak edo makina-erremintatarako	36.804	17.640	3,9	-52,1
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikorako kobre anodoak	11.090	16.511	3,6	48,9
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	29.787	16.299	3,6	-45,3
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	13.924	14.914	3,3	7,1
kateak eta horien galdaketako, burdinazko edo altzairuzko zatiak	3.601	12.916	2,8	258,6
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	12.192	10.134	2,2	-16,9
Bero bidez materialak tratatzeko aparatuak	1.340	9.968	2,2	644,2

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

GIPUZKOA. Esportazioak 2020ko apirilean

Gipuzkoak izan du, hiru lurralde historikoen artean, narriadura esportatzaile txikiena, eta Euskal AEko batez bestekotik behera dago, % 44,3ko beherakada izan baitu. Hala ere, hil honetan, bere 10 partida nagusietako 7k atzerapen handiak izan dituzte, esaterako: *“Automobilentzako zati eta*

osagarriak” (–% 43,2), “Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak” (–% 44,6) eta “Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulstuetarako” (–% 94,0).

**Gipuzkoko lurralde historikoko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p).
Apirila 2020**

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
Guztira	757.352	421.892	100	-44,3
Automobilentzako zati eta osagarriak	65.868	37.408	8,9	-43,2
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	21.522	21.971	5,2	2,1
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	31.078	17.211	4,1	-44,6
Bolen, arrabolen edo orratzen errodamenduak	10.018	12.079	2,9	20,6
Materiala abiaraztean metala zulatzeko, eskariatzeko, fresatzeko edo hariztatzeko makinak, tornuak izan ezik	6.953	11.510	2,7	65,6
Metal arrunteko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak	14.236	11.076	2,6	-22,2
Ontziak eta paketatutako aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatutako makinak	12.475	11.070	2,6	-11,3
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulstuetarako	165.680	9.959	2,4	-94,0
Haria, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	13.216	9.829	2,3	-25,6
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak...	14.339	9.604	2,3	-33,0

(p) Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Joera positiboak izan dituzte honako partida hauek: “Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako” (% 2,1), “Boladun, arraboldun edo orraztun errondamenduak” (% 20,6) eta “Material-harroketak bidez metala zulatzeko, otxabutzeko, fresatzeko edo hariztatzeko makinak, tornuak salbu” (% 65,6).

URTEKO METATUA (2020KO LEHEN LAU HILABETEAK): kanpo-saldoak 1.060 milioi euroko superabita izan du, eta estaldura-tasa % 119,1ekoa da

2020ko lehen lau hilotan, Euskal AEko **esportazioek** % 21,4ko beherakada izan dute, aurreko urteko aldi beraren aldean, alegia, 1.795,5 milioi euro gutxiago. Aldi horretan zenbateko esportatzailea 6.610,5 milioiokoa da, eta kopuru horri Bizkaiak egiten dio ekarpenik handiena, 2.606,8 milioiokoa (guztizkoaren % 39,4), gero Gipuzkoak (2.177,9 milioi) eta, ondoren, Arabak (1.825,7 milioi).

Bizkaiko esportazioak Euskal AEko garrantzitsuenak dira, nahiz eta urte arteko beherakada % 18,9koa izan (2019an baino 609,1 milioi gutxiago). Araban, beherakada % 22,6koa izan da (533,2 milioi gutxiago) eta Gipuzkoan, % 23,1ekoa (653,2 milioi gutxiago). Esportatutako produktu mota aintzat hartuta, egiaztatzen da “Produktu ez-energetikoak” (1.512,6 milioi gutxiago) direla aurretik beherakada hori kontzentratzen dutenak, baina “energetikoak” ere atzera egin dute (282,9 milioi gutxiago).

2020ko lehen lau hiletan gehien saldu diren hamar produktuek (muga-zergen partidak) guztizkoaren % 39,7 kontzentratzen dute, 2.621,8 milioiko zenbatekoarekin. Horiek guztiek beherakadak izan dituzte 2019ko aldi beraren aldean. Beherakada horietako gehienak 50 milioi eurotik gorakoak dira, eta haietako bost nabarmendu behar dira, 100 milioi euro baino gehiagoko beherakadak izan baitituzte, eta lauk 150 milioi baino gehiagokoak. Zehazki, garraio-materialarekin zerikusia duten produktuak dira. Hala, “Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulstuetarako” partidak % 52,5 egin du behera (189,1 milioi euro gutxiago), “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” partidak % 27,7 (194,8 milioi gutxiago), “Salgaiak garraiatzeko automobilak” partidak % 34,9 egin du atzera (171,0 milioi gutxiago) eta “Automobilentzako zati eta osagarriak” partidak % 25,8 egin du behera (157,4 milioi gutxiago). Halaber, atzerapen nabarmena antzeman da “Petrolioaren olio finduak” partidan (–% 22,3 eta 109,4 milioi gutxiago).

2020ko hilotako ranking esportatzailean, Alemania da herrialde hartzaile nagusia, esportatutako guztizkoaren % 16,2ren hartzailea. Alemaniaren ondoren, honako hauek daude rankingean, hurrenkera honi jarraikiz: Frantzia (% 15,6), Estatu Batuak (% 6,8) eta Erresuma Batua (% 6,7). Horrela, lau herrialdeen artean, esportazioen % 45,3ren hartzaile dira.

Euskal AErako **inportazioen** metatua, aintzat hartutako aldian, 5.550,3 milioi euro ingurukoa da. Zifra hori urte artean erkatuz gero, 2019ko aldi berean erregistratutakoa baino 1.343,5 milioi baxuagoa dela ikusten dugu. % 19,5eko beherakada hori izan da, zati handi batean, Bizkaiko lurraldean (3.187,2 milioiko balioa duten inportazioak ditu) aldi horretarako % 19,7ko beherakada egon delako, alegia, aurreko urteko hiruhileko berean baino 781,4 milioi gutxiago. Halaber, behera egin dute Gipuzkoako inportazioek (–% 19,5 eta 289,5 milioi gutxiago), bai eta Arabakoek ere (–% 18,9 eta 272,7 milioi gutxiago); inportatutakoaren balioa, bi lurralde horietan, 1.196,1 milioikoa eta 1.167,0 milioi eurokoa izan da, hurrenez hurren. “Produktu energetikoen” inportazioak % 27,5 egin du behera, eta “Produktu ez-energetiko”enak, % 16,6.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2020ko lehen lau hiletan, 1.060,2 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta, nahiz eta aurreko urteko aldi berean erregistratutakoa baino 452 milioi gutxiago izan, aldeko estaldura-tasari eustea dakar, % 119,1ekoari.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62